



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko apirilaren 4a

54. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5 b) artikulua aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak zer urrats egin dituen Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia betetzeko, ETaren biktimen omenezko plaka bat gertakariak izandako lekuan bertan jartzea prematzekoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (4. or.).

—Galdera, Foruzaingoko sindikatuak polizia buruzko lege proiektuaren aurka daudela ikusita Nafarroako Gobernuko lehendakariak egiten duen balorazioari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (5. or.).

—Galdera, Nafarroako Kutxa desagertzean galdutako ondarea defendatze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (5. or.).

—Galdera, udal jabetzako lehen hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan obrak egiteko deialdiari buruzkoa. Miren Aranoa Astigarraga andreak egin du (6. or.).

—Galdera, Nafarroako 2020ko Industria Planari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (7. or.).

—Galdera, Nasuvinsaren menpeko etxebizitza sozialari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (7. or.).

—Galdera, Polizieiei buruzko lege berriari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (8. or.).

—Galdera, Prestazio Handiko Trenaren obra egiteko Nafarroako Gobernuak egingen dituen urratsei buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (8. or.).

—Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak hitzarmen berririk sinatu al duen Estatuko Administrazio Orokorrekin eta Adif-ekin, 2010ean sinatutakoa ordeztzen duenik. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).

—Galdera, Legegintzaldi honetarako aurreikusten diren lan-eskaintza publikoei buruzkoa. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (10. or.).

—Galdera, Nafarroarako abiadura handiari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, Reyno de Navarra Arena pabiloia dela-eta Nafarroako Gobernuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera erretiratzea (11. or.).
- Galdera, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua Erakunde Autonomoko lanpostuen deialdian Laneko Zientzietako eta Soziologiako lizentziadunak onartzeari buruzkoa. Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetzea (11. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986  
Foru Legeko 5 b) artikulua aldatzekoa.**

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1. 2017ko apirilaren 27ko eguerdiko hamabik arte** luzatzea Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5 b) artikulua aldatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aur-

kezteko epea. Aipatu foru lege proposamena 2017ko otsailaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

F saila:  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak zer urrats egin dituen Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia betetzeko, ETaren biktimen omenezko plaka bat gertakariak izandako lekuan bertan jartzea premiatzekoa.**

*ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak zer urrats egin dituen Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabakia betetzeko, ETaren biktimen omenezko plaka bat gertakariak izandako lekuan bertan jartzea premiatzekoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Joan den ekainaren 2an Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen, zeinak Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzuen ETaren biktimen oroimenezko plakak jartzera, Nafarroako udalekin lankidetzan, Nafarroan eraiketa terroristak burutu ziren lekuetan.

Zein urrats egin ditu zure gobernuak aipatu erabakia betetzeko?

Iruñean, 2017ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, Foruzaingoko sindikatuak poliziei buruzko lege proiektuaren aurka daudela ikusita Nafarroako Gobernuko lehendakariak egiten duen balorazioari buruzkoa.**

*ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Foruzaingoko sindikatuak poliziei buruzko lege proiektuaren aurka daudela ikusita Nafarroako Gobernuko lehendakariak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da zure balorazioa, Foruzaingoko sindikatu guztiak Barne Departamentua prestatzen ari den lege-proiektuaren aurka egoteari buruz?

Iruñean, 2017ko martxoaren 28an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, Nafarroako Kutxa desagertzean galdutako ondarea defendatze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.**

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxa desagertzean galdutako ondarea defendatze aldera Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Kutxari dagokionez lehenbiziko bategite- eta integrazio-mugimenduak izan zirenetik, 2010. urtetik aurrera, Nafarroako Kutxaren Kontseilua 2013an desegin zen arte, urrats asko egin ziren, zeinetan Nafarroako Gobernuaren eginkizuna baitzen nafar guztion ondareztat jo behar zen horren gaineko zaintza eta ardura.

Behin desagitea gauzatuta, eta ondare-galera egiaztatuta, Nafarroako Gobernuak, antza, ez du ezer egin 2013az geroztik hondamen horrek kalte-tutakoak, alegia, nafar jendea, defendatze aldera.

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kutxa desagertzean galdutako ondarea defendatze aldera?

Iruñean, 2017ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

## **Galdera, udal jabetzako lehen hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan obrak egiteko deialdiari buruzkoa.**

*MIREN ARANOA ASTIGARRAGA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, udal jabetzako lehen hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan obrak egiteko deialdiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan partida bat jaso zen, 250.000 eurokoa, udal jabetzako 0-3 urteko haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan obrak egiteko.

Ikusirik zein garaitan gauden, eta kontuan harturik gaur egun udalek ez dakitela ez noiz ez nolako izanen den udal jabetzako haur-eskoletan obrak egiteko laguntzen deialdia, eta aipatu obrak udako hilabeteetan egin behar direla nahitaez, ikastetxeen funtzionamendua ez eragozteko, gure talde parlamentarioak hauxe jakin nahi du:

Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspenaren arabera, udal jabetzako haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan obrak egiteko deialdia noiz argitaratuko da, eta nolako izanen da?

Iruñean, 2017ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

## **Galdera, Nafarroako 2020ko Industria Planari buruzkoa.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako 2020ko Industria Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez

Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak berriki aurkeztu du Nafarroako 2020ko Industria Plana. Hori dela eta:

Prestatu al da generoaren gaineko eraginari buruzko kasuko txostena? Zer neurri aurreikusten dira aipatu planean, soldaten arteko arraila murrizte aldera? Nola lotuko da plan hori Nafarroako Gobernuaren lanbide-heziketako eskaintzarekin?

Iruñean, 2017ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, Nasuvinsaren menpeko etxebizitza sozialari buruzkoa.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nasuvinsaren menpeko etxebizitza sozialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez

Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Prentsan Nasuvinsako kudeatzaile José María Aierdiri egindako elkarrizketa ikusita,

Nasuvinsaren mendeko etxebizitza sozialei buruzko neurrien artean, Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du indarkeria matxistaren biktima diren emakumei eta neska-mutikoei dagokienez legean jasotzen den ehunekoa betetzea?

2015eko legearen espirituaren ildotik Legebiltzar honek onetsitako etxebizitza-bermea jasota al dago etxebizitza-plan honetan? Nola? Zer baliabiderekin eta kontrol-neurriekin?

Iruñean, 2017ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, Poliziei buruzko lege berriari buruzkoa.**

*MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztutako galdera, Poliziei buruzko lege berriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Inma Jurío Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak 2017ko apirilaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Apirilaren 12a ia gainean daukagunez –zuk esana da prestatu duzuen Poliziei buruzko Lege berria egun horretan aurkeztuko zenuela gobernu-bilkuran– , iragarritako epeetan jarraituko al duzue lege hori izapidetzen?

Iruñean, 2017ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Inma Jurío Macaya

## **Galdera, Prestazio Handiko Trenaren obra egiteko Nafarroako Gobernuak eginen dituen urratsei buruzkoa.**

*SANTOS CERDÁN LEÓN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Santos Cerdán León jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Prestazio Handiko Trenaren obra egiteko Nafarroako Gobernuak eginen dituen urratsei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko foru parlamentari Santos Cerdán León jau-

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, 2017ko apirilaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak beti defendatu du, Nafarroako Gobernuari babesa ematen dioten taldeen anbiguotasunaren aitzinean, prestazio handiko trenaren proiektua. Azpiegitura hori, Nafarroako Ubidearekin batera, funtsezkoa da Nafarroa egituratzeko, eta gure enpresen lehiakortasuna areagotzea ekarriko du.

Nafarroako Gobernuak zer urrats eginen ditu obra hori egiteko eta gure erkidegoak prestazio handiko tren bat ahalik eta azkarren izan dezan?

Iruñean, 2017ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León



## **Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak hitzarmen berririk sinatu al duen Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta Adif-ekin, 2010ean sinatutakoa ordezten duenik.**

### *ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak hitzarmen berririk sinatu al duen Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta Adif-ekin, 2010ean sinatutakoa ordezten duenik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldearen ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2017ko apirilaren 6an egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Aste honetan zehar zenbait albiste argitaratu dira Nafarroako abiadura handiko trenari buruz; besteak beste, hauek:

– UPNren ordezkariak bilerak egin dituzte Estatuko Gobernuarekin, obra-kontratazio berriak egiteko aurrekontu-partidak direla-eta.

– PPko senatari Sanz andrearen idazki batean aipatzen da “Estatuko Administrazio Orokorraren, Nafarroako Gobernuaren eta Adif-en artean lortutako hitzarmen berria, proiektu horretan aurrerabidea egiteko”.

– Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak Lleidan emandako hitzaldi batean adierazi zuenez, “Nafarroa adi-adi dago, ea trenbide-korridorea dela-eta konprometitutakoarekin zer gertatzen den”.

Hori dela-eta, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernuak hitzarmen berririk sinatu al du Estatuko Administrazio Orokorrarekin eta Adif-ekin, 2010ean sinatutakoa ordezten duenik? Ezezkoan, administrazio horrek berri baterako inolako proposamenik egin al du? Gobernuak zer iritzi dio UPNren jokabideari, Estatuarekin zuzenean negoziatu baitu 2017ko ekitaldirako aurrekontuetan kredituak jasotzea, 2010eko hitzarmenean aurreikusitako obra-adjudikazioen prozedurak abiarazteko xedez?

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Legegintzaldi honetarako aurreikusten diren lan-eskaintza publikoiei buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Legegintzaldi honetarako aurreikusten diren lan-eskaintza publikoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarreko Marisa de Simón Caballero andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernu zentralak kendu egiten baditu azken urteotan lan-eskaintza publikoen deialdietarako ezarri dituen berrezarpen-tasa murriztaileak,

– Legegintzaldi honetan Nafarroako Gobernuak lan-eskaintza publikoko zer deialdi egiteko asmoa du?

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, Nafarroarako abiadura handiari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroarako abiadura handiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak erantzun diezaion:

Nafarroarako proiektu estrategikoetako bat da AHTaren garapena; izan ere, proiektu horrek lehia-korragoa egin dezake Nafarroa ikuspuntu enpresarialetik. Gainontzeko autonomia erkidegoen pare jartzen gaituen azpiegitura bat da, aukerak eta enplegua eskaintzen dizkiguna.

Nafarroako Gobernuak abiadura handiaren aldeko apustua egiten du Nafarroarentzat, ala Bilduk defendatzen duen ereduaren alde?

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, Reyno de Navarra Arena pabiloia dela-eta Nafarroako Gobernuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Consuelo Satrustegui Marturet andreak aurkezturiko galdera erretiratu duela. Galdera Reyno de Navarra Arena pabiloia dela-eta Nafarroako Gobernuak

darabilen aurreikuspenari buruzkoa zen, eta 2017ko otsailaren 7ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Galdera, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua Erakunde Autonomoko lanpostuen deialdian Laneko Zientzietako eta Soziologiako lizentziadunak onartzeari buruzkoa.**

### *ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Eskubide Sozialetako Batzordean izapidetu dadin, Eskubide Sozialetako kontseilariak erantzun dezan, Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkezturiko galdera, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua Erakunde Autonomoko lanpos-

tuen deialdian Laneko Zientzietako eta Soziologiako lizentziadunak onartzeari buruzkoa. Galdera 2017ko martxoaren 21eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

